

- Kaixo!

Iratxoak erantzun:

- Awisi.
- Ez dut ezer ulertzen! - Juliek aspertuta.

Beraz, Maxek erantzun zuen berak erakutsiko ziola hizkuntza. Orduan, erakutsi zion eta denak joan ziren basora. Basoa mundua zen. Basoan, zuhaitzek kantatu egiten zuten eta Okotsik esan zuen izututa:

- Zuhar okke sinu garrataz du.

Momentu horretan, adar bakarreko zaldi bat agertu zen bere ortzadarrarekin, barreka, pozik eta alai; hark zuen ukimen leuna. Adar bakarreko zaldiari izena galdetu zioten eta erantzun zuen Sily deitzen zela. Sily entzutean, basoko landareak eta loreak, alde batetik bestera hasi ziren dantzan. Hauek izututa, Silyren gainean jarri eta zerutik hegan joan ziren. Mundu desberdinak ezagutu zituzten eta mundu batera heltzen zirenean Okotsik esaten zien garrasika:

- Txokolate mundua! Begira ze zapore goxoa! Txokolatea surfeatzen! - Ikasi zuen euskaraz hitz egiten.

Mundu hauek ezagutu zituzten: algodoiena, arrosa usainarena, ostadarrena, koloreak dantzan zeuden lekua, animalia arraroena...

Okotsi, Max, Julie eta Sily mundu batetik pasatzen zirenean, bertakoek oihukatzen zuten:

- Hor datoz 4 fantastikoak

.....  
"Lau fantastikoak"

*Naia Legarreta García*

12 urte - Mungia

2012 - D kategoria

2. saria  
.....

